



Arartekoaren 2024R-11-24 Ebazpena, 2024ko abenduaren 19koa. Honen bidez, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailari gomendatzen zaio familia ugariaren titulua urtero-urtero berritzeko irizpidea alde batera utz dezan berriz eratutako familien kasuan, esaterako, kexa jarri duen familiaren kasuan.

Aurrekariak

1. Familia berreratu batek Arartekora jo zuen, berriz ere adieraziz Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak familia ugariaren titulua beste behin ere urtebetez soilik berritzea eskaintzen ziola. Arartekoak auzi horri buruzko iritzia eman zuen 2023R-2509-22 Ebazpenean.
2. Kexa aurkeztu zuen familia senar-emazteek, haren bi alabek eta senarraren seme nagusiak osatzen dute. Semea 2011n jaio zen, aitaren aurreko harreman baten ondorioz, eta aitak haren gaineko zaintza partekatua du. Familia berreratua ugari bilakatu zen kexagilearen hirugarren alaba jaio zenean, 2020an, eta data horretan familia ugariaren aitortzea eta titulua eskuratu zuten.

Zaintza partekatzen duen seme nagusiaren amak ez dauka seme-alaba gehiagorik.

3. Familiak kexa bat jarri zuen Arartekoaren aurrean 2022ko amaieran, 2023. urteko familia ugariaren titulua berritzeko izan zituzten oztopoen kariaz; izan ere, 2011n jaiotako semearen amaren baimena aurkezteko eskatu zieten, eta baimen hori gabe, eta adierazi zieten baimen hori aurkeztu ezean, titulua berritzeko urteko txandakatzeko irizpidea bete behar zela.
4. Arartekoak ebazpena eman zuen³ eta, bertan, adierazi zuen ez zegoela ados familia horri aplikatutako urteko txandakatzeko irizpidearekin eta irizpidea berraztertze gomendatu zion administrazioari. Gomendio hori zati batean onartu zuen Foru Erakundeak; hain zuzen ere, onartu egiten zuten seme nagusiaren gurasoen artean titulua txandakatzeko irizpidea zalantzan jartzen zuen zatia, baina eutsi egin zioten urtero-urtero berritzeari buruzko jarrerari; bada, horrela eginda, Aldundiak familia ugariaren titulua berrikusteko aukera zuen, beste gurasoak familia-egoera aldatzen baldin bazuen.

³ [Arartekoaren 2023R-2509-22 Ebazpena, 2023ko martxoaren 20koa. Honen bidez, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio familia ugariaren titulua berritzeko urtero txandakatzeko irizpidearen aplikazioa berrikusteko berreraikitako familia baten kasuan.](#)



5. Foru Erakundearen erantzuna ikusita, Arartekoak bat egin zuen berriz ere irizpide hori familia horri aplikatzeari buruz egindako gogoetekin, eta irizpide hori aplikatzeak eragindako pertsonengan izan zitzakeen eraginak azpimarratu zituen, kexa-espediteari itxiera emanda.
6. Familiak beste kexa bat aurkeztu zuen defentsa-erakundearen, 2024. urtean berriro jaso baitzuen titulua urtebeterako berritzeko erabakia.
7. Arartekoak Gizarte Politiken Sailera jo zuen, kasua azalduta, eta zehazki galdetu zion ea egokitzat jotzen duten familia jakin horri titulua urtero-urtero berritzeko irizpidea aplikatzea, kasua Familien Erakunde arteko Taldearen akordioetan jasota ez dagoelarik.

Foru Sailak ondoko erantzuna eman zuen:

“En cuanto a valoración que se emite, desde esta Administración, al análisis sobre el criterio que se adoptó el 20 de mayo de 2015 por el Grupo Técnico Interinstitucional de Familias Numerosas compuesto por miembros del Gobierno Vasco y de las tres diputaciones forales y a la conclusión por parte del Ararteko de que la familia de la Sra. ---, no se encuentra en ninguno de los 3 supuestos establecidos, ciertamente no se encuentra en ninguno de ellos; sin embargo sí se encuentra en uno de análoga situación: ‘Ascendientes con guarda y custodia compartida en los que, alguno/a de los/as progenitores reúnen requisitos para el reconocimiento de la situación de familia numerosa, y el/la otro/otra es susceptible de poder reunirlos en cualquier momento’, es por ello por lo que se le aplica el criterio de valoración anual.

Por otra parte, entendiendo que la normativa actual, dado su año de publicación, no recoge todos los supuestos que se presentan en la sociedad presente, estamos a la espera de la entrada en vigor de la nueva Ley de Familia, para implementar las adaptaciones que la citada Ley establezca.”

Gogoetak

1. Arartekoak badaki Familia ugariak babesteko 40/2003 Legeak kasu asko kanpo uzten dituela, eta ez dituela barne hartzen gaur egun dauden familia-mota guztiak. Hala adierazi du behin eta berriro urteko txostenetan⁴. Era berean, ezagutzen ditu espediente honetan aipatzen diren Familia Ugarien Erakunde arteko Talde Teknikoaren baitan hartutako erabakiak (Eusko Jaurlaritzako eta hiru foru-aldundietako kideek osatzen dute taldea, lege-hutsune horren inguruko

⁴ [Arartekoaren Urteko Txostena. 2019. III 2.2. Kapitulua. Familia Ugariak](#)



jarduerak bateratzeko helburuz), txosten honetan zenbaitetan aipatutakoak. Erabaki horien bidez, ahalegin handia egin da tituluaren kudeaketa argitzeko eta errazteko, indarrean dagoen araudian era argian sartzen ez diren hainbat kasutan.

Beste alde batetik, estatu-mailako Familien Legearen izapidetzea luzesten ari dela jakinik, Arartekoak kezka agertu behar du Euskadin egiten den familia ugariaren tituluaren kudeaketaren inguruan, behintzat, erregulazio berririk ez dagoen bitartean.

Familien Erakunde arteko Taldearen 2015eko maiatzaren 20ko Erabakiaren 2. Atalean, jarduera-irizpideak bateratu ziren ondoko kasuetan: “Lehenengotik aurrerako familia-unitate desberdinen familia ugariaren tituluak, familia-unitateen haustura-kasuetan”.

Kexa aurkeztu duen familiaren kasua, diputatuak berak erantzun-idazkian aitortzen duen bezala, ez dago jasota aipatutako erabakian ezarritako 3 kasuetako batean ere:

“Primero: Ascendientes, individualmente considerados, con 3 o más hijos o hijas, que están separados o divorciados y tienen guarda y custodia compartida. Tanto el padre como la madre reúnen los requisitos para el reconocimiento de la condición de familia numerosa.

Segundo: Nueva unidad familiar (con hijos o hijas no comunes) en la que cada uno de los ascendientes aporta hijos o hijas a la unidad familiar (sobre los que no existe guarda y custodia compartida), resultando 3 o más.

Tercero: Nueva unidad familiar (con hijos o hijas no comunes) en la que cada uno de los ascendientes aporta tres hijos o hijas a la unidad familiar y el otro ascendiente 1 o 2 hijos o hijas.”

Ebazpen honetan aztertu den kasua ez dator bat aipatutako manuan jasotako ezein kasurekin. Era berean, ezin da analogiarik aurkitu erabaki horretan jasotzen diren hiru inguruabarrekin.

Tituluaren urteko indarraldia bigarren ataleko kasuei ezartzen zaie, eta neurri hori justifikatuta dago elikagaiak emateko betebeharra betetzen ote den urtero-urtero berrikusteko.

2. Arestian azaldutakoa gorabehera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eutsi egiten dio kexa aurkeztu duen familiak titulu urtero-urtero berritu behar duelako





irizpideari, erabaki-agirian jasotako kasuren baten **antzeko** egoera jasota dagoela iritzita (ez da zehaztu, baina, zer kasuz ari den):

“Ascendientes con guarda y custodia compartida en los que alguno/a de los progenitores reúnen requisitos para el reconocimiento de la situación de familia numerosa y otro/a es susceptible de poder reunirlos en cualquier momento.”

Interpretazio eta irizpide berri horrek zalantza ugari sortzen ditu Ararteko erakundean, familiengan izan dezakeen eraginagatik. Alde batetik, ezkontide ohiak bere familia-egoera aldatu ote duen berrikusteko urtero berritzea eskatzen zaion kasuan, erakunde honen iritziz, eskakizun horrek arrazoirik gabe eta gehiegi zamatzen du eskubidearen titularra, hirugarren pertsona baten egoerari buruzko eskakizunak betetzea eskatzen diolako, eta, gainera, arauzko euskarririk ez daukanez, arbitrariotasuna gerta daiteke.

Gainera, aurrekoarekin lotuta, bikotekide ohiak familia ugariaren titulua izateko berezko eskubidea sortu izan balu, beste kide gehigarri batzuekin sortuko zukeen, eta, beraz, familia ugariaren beste titulu potentzial bat egongo zatekeen, beste onuradun batzuekin, baina horrek ez lieke inola ere eragin beharko kexa jarri duen familia ugariko kideei. Eta eragingo balie, titulua emateko baldintzetan eragina izan dezaketan aldaketak epe jakin baten barruan jakinarazteko betebeharra arautua dago.

Hain zuzen ere, familia ugariak babesteko 40/2003 Legearen 6. artikulua dioenez, titulua berritu egin beharko da familia-unitateko kideen kopurua edo titulua ematea eragin zuten baldintzak aldatzen direnean, eta horrek kategorialdaketa edo familia ugariaren izaera galtzea dakarrenean. Arartekoaren iritziz, horixe da kasu honi aplikatu beharreko erregulazioa: gertatzen diren aldaketak jakinarazteko betebeharra dago, eta hori egiteko epea aipatutako Legearen 17. artikulua araututakoa da: hiru hilabetekoa. Kexa aurkeztu duen familia urtero-urtero titulua berritzera behartzea, tituluari lotuta ez dagoen hirugarren pertsona baten egoeran aldaketarik egon ote den egiaztatzeke helburuz, ez dirudi arrazoizkoa denik, erakunde honen iritziz, eta zerbitzu publikoen kudeaketan kosta ahala kosta saihestu beharreko arbitrariotasuna izan daiteke.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11 b) artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Arartekoak ondoko gomendioa egiten dio Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailari:





GOMENDIOA

1. Berreratutako familiei, hala nola kexa jarri duen familiari, titulua urtero-urtero berritzeko irizpidea alde batera utz dezan.
2. Kexagilearen familiari familia ugariaren titulu berria eman diezaion, Familia Ugarien Legearen 3. artikulua ezarritako baldintzei lotutako indarraldiarekin, hau da, gutxienez, seme nagusiak 21 urte bete arte.

